

Historiaurrea ikasleentzat

PROPOSATUTAKO TAILERRAK ESKOLETAKO IKASLEENTZAKO SORTUAK DIRA.

- Lehen Hezkuntzatik, Batxilergo artek mailentzako sortutako eta prestatuak ekintzak
- Gutxieneko maila, Haur Hezkuntzako azeken maila.

TAILE BAKOITZEAN PROPOSATZEN DA:

–

Eztabaida denbora / hautaturiko gai edo tailer inguruan

– Aurkezpen orokorreko denbora hautaturiko gai edo tailer inguruan

– Historiaurrean murgildu eta praktikatzeko denbora

Maila bakoitza inguruko lehenetasun pedagogikoak:

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

– **Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3. mailak:**

Helburu nagusia, Historiaurreko Ingurugiro eta gizakien kulturen ezberdintasunez jabetzea. Era honetan denboraren igarotzea barneratua izango da. Erabilitako tresnak, behaketa, ukimena, lehengaien ezagutzea (suharri eta hezurra) eta hauen bilakapena historiaurreko tresnerian.

– **Lehen Hezkuntzako 4, 5 eta 6. mailak:**

Lehenengo helburua izango da, egungo zein Historiaurreko gizakien ahalmenak, aurkitu, ulertu eta barneratzea da. Horretarako erabilitako baliabidea Historiaurreko Labar zein artelan igigarriak dira. Isturitz & Oxocelhayan biotako bilduma zabalak aurkituak izan dira.

Gai honek oso aproposa da ikasleek, haien ahalmenak ezagutarazteko balioko du; haurren psikomotrizitate fina, pazientzia, erreflexioa, ahalegina eta planifikatze ahalmenak goraipatuz, guzti honek Historiaurrek gizaki eta egungo gizakien hurbiltasuna goraipatzeko.

Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.

– DBH 1 eta 2. mailak: Epe hau erabiliko dugu Naturaren ezagutzan sakontzeko, bereziki gizakien natura eta gizadiaren aberastasuna goraipatuz. Erreflexio gaiak hautatuak izango dira eta Historiaurrea aitxakitzat izanda garatuak izango dira.

– DBH 3 eta 4. mailak: Epe honetan lekuko ondarearen ezagutza goraipatuko dugu. Hasiko gara koadro zabal batetik, Europako Hegomendebala eta pixkanaka neurria murriztuko dugu Euskal Herrira, azkenik lekuko adibide bezala Isturitz & Oxocelhaya-n aurkitutako aztarna arkeologikoak izanik.

Modu praktikoa batean, giza eboluzioari eta tresneriaren bilakaera egingo zaio erreferentzia. Arkeologia eta bereziki Historiaurreko Arkeologiaz mintzatuko gara egungo ezagutzak ikasleei ulertarazteko.

– Batxilergo:

Batxilergoa gauzatzen duten ikasleek haien begirada etorkisunera zuzendurik dute. Haien aukeraketan laguntzeko Historiaurrea tresna bezala erabili nahi dugu. Erreflexioa, Zientzia inguruan galdetzea eta Historiaurrea zientzia multidisplinar bezala aurkeztu nahi dugu egungo gizartearen konplexutasunaren adibide bezala.

Horrez gain, gazteen zentzu kritikoa azalarazi nahiko genuke, argitaratutako informazioak era kritikoa jaso, arrazoitu eta galdetzeko gai izan daitezkeen, hortaz gain dibulgazio eta bereziki dibulgazio zientifikoaren zailtasunak ezagutaraziko dizkiegu. Aukera izanez gero, hurbiltze honek ikasgai ezberdinen bidez gauzatuko litzateke (Historia-Geografia eta Natur Zientzien artean, adibidez).

-Neguko ekintzak:

Azkenik, eta neguan bereziki proposamen pedagogiko guzti hauek eskola eta ikastetxeetan garatuak izan zitezkeen eta hurrengo udaberrian osotuko Isturitz & Oxocelhaya-ko harpeen bisitaldiaz. Eskola eta ikastetxeetan aurkezpenak Giza Eboluzioan, garapen teknologikoan, zabalkuntza zientifikoaren arazo eta Ondare arkeologikoa zelan aurkeztu eta balioztatzearen inguru ihardungo dituzten ekintzak proposatzen ditugu.

Finalmente, y en particular durante el periodo invernal estas propuestas pedagógicas podrán ser realizadas en los centros educativos y completadas con una visita a Isturitz & Oxocelhaya en primavera. Así mismo, en los centros educativos, las presentaciones se focalizarán en la Evolución Humana, evolución tecnológica, pero también reflexionarán en torno a los problemas de difusión científica y puesta en valor del Patrimonio Arqueológico.

Antolakuntza

Programa eta aktibitateak garatuak izanen dira erakaslego taledekin batera.

Proiektua garatu aurretik, talde bakoitza gehienez 30 ikaslez osotuko da. Talde zabalagoen kasuan, ikasleek bi taldeetan batuko dira, talde batek ekintzak goizez eta harpeen bisitaldia arratsaldean egingo ditu. Bigarren taldea berriz alderantziz arituko da.

Aukeratzeko:

1- Hizkuntza: Euskara edo Gaztelania.

2- Aurkezpen tokia: Ikastetxean (neguan) edota Isturitz & Oxocelhaya-ko harpeen txoko pedagogikoan (harpeek Hazparnetik 12km daude, Behe Nafarroan, Baionatik 40 minutura).

3 – Ekintzen iraupena:

- **Jardunaldi erdia:** Historiaurreari hurbiltzea eta Gazteluko muinoa (30min) eta harpeei bisitaldia (60min).
- **Jardunaldi osoa:** Historiaurreari hurbiltzea (30 min), hautatzeko tailer bat "Paleolito garaiko labar artea" edo "Historiaurreko ingurugiroa eta animaliak" (90min) eta harpeen bisitaldia (60min).
- **Jardunaldi ainitz:** Unitate didaktiko berezia, ekintzen animatzaile eta irakas taldearen artean diseinatuko dena. Hala ere, beharrezkotzat jotzen da behintzat jardunaldi erdia harpeetan igarotzea.

Harremana eta Prezioak

Garapen pedagogikoaren ardura, aktibitateen garapena eta harpeen bisitaldia Aritza Villaluenga-ren eskutik izango dira. Aritza, Magisteritzako Diplomaturia, Historian Lizentziatua eta Historiaurrean Doktore da, dudarik gabe pertsona egokia Historiaurreari buruz mintzatzeko.

Edozein galdera izanez gero edo bisitaldi zein aktibitateak zehazteko kontaktua:

aritzavillaluenga@gmail.com

tlf. 0033 (0)695905720 / 0033 (0)980489749

Prezioak:

Jardunaldi erdia: Aurkezpena (3€/ikasle) + Harpeen sarrera (3,8€/ikasle)

Jardunaldi osoa: Aurkezpen eta tailerra (5€/ikasle) + Harpeen sarrera (3,8€/ikasle)

Ikastetxeetan ekintza pedagogikoak: 70€/egun erdi edo 120€/ egun osoa (kilometroak eta materiala proiektuka kalkulatu dira).